

# ...eta **kitto!**

771 zkia. 2011-VII-8

ASTEKARIA

TOKIKOM

# HARRIA LAGUN 40 urteko ibilbidean



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua [jorgevega.eibar@gmail.com](mailto:jorgevega.eibar@gmail.com) [jvega@jorgevega.es](mailto:jvega@jorgevega.es)





**IRAZABAL**  
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.  
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...**

**IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako  
prebentzioaren alde egiten dugu apustu.**

**Egizuz PADI-ren azterketak.**

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
itzu  
**zerbitzua**



- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi, Silbia

Hernandez eta Ander Saleg

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO IRUDIA:**

Itziar Perurena

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HEGAZTADA.-** Hegaldia, hegada. "Erlamiño harek ez eban egin Isasiko Ollalokiak egin zeikian baiño hegaztada haundixagorik".

**HEGA/HEGAZTADA BATEN.-** Berehala. "Hega baten juan zaittez Ermuarretaraiñok, ez daukagu ba ogirik eguardirako".

**HEGAZTI.-** Hegan egiten duen animalia. Normalian jatekoa denean. "Aindu detsa osagilliak, hegatzixa eta arraiña, eta ortuko gauzia".

## ESKUTITZAK

### — OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

### DATORREN ASTEKO AOPORREN AURREKO AZKEN ALEA

izango da; hori dela-eta, zorionetarako edo beste edozein zerbitzurako, jakin ezazue hilaren 15ean kaleratuko dugun alearekin amaituko dugula denboraldi honetako jarduna, udako oporrak hartu eta Arrateetan berriro bueltatzeko.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Amerikako Estatu Batuen nagusitasunak bere azkenak eman ditu neurri batean. Gaur egun gizatzarrena balitz moduan ulertzen da eta Obamaren aholkulari batzuk moralaren kontratuzat jotzen dute. Ez dut aste zuzen dabiltzanik, modu horretan AEB bere baitan itxi delako eta bizkarra eman diolako munduari. Gainera, ez da ahalmen kontua, jokabide aukeraketa baizik"

(Henry Kissinger, AEB-ko estatu idazkari-ohia)

"Pagolaren liburuaren inguruan: Doktrina Batzordeko gotzain jaunok, zuentzat doktrina, baina itzul iezaguzue ebanjelioa, Jainkoaren eta kultura guztien amore-agatik. Doktrina da beraiena; ez kendu, ea hurrena! ezer gabe geratzen diren! Ortodoxiaren jabeak izango zarete, baina ez ebanjelioaren jabeak, ez askatasunaren eta kontsolamenduaren jabeak"

(Joxe Arregi, frantziakotarra eta idazlea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIXA

Administraziño bereziko mailla ertaineko tekniko lanpostu bat betetzeko deialdixa egin dau Udalak. Eskatzailliak bete biharreko baldintzak zein bestelako argibidiak Pegoran eskuratzeko moduan dagoz eta eskaeriak be bertan presentau biharko dira, uztaillaren 18ra arte (egun hori barne).

### UDAKO IKASTARUAK BUELTAN

Astelehenian atzera be UEUren udako ikastaruak Eibarren bueltan izango dira, Baionari lekukua hartu ostian. Hillaren 15era bittartian aukera zabala eskinduko dabe ikastaruak, bestiak beste Hizkuntzalaritza, Itzulpengintza, Informatika-Elekttronika, Psikologia-Hezkuntza eta Soziologia arlueri lotutakuekin.

### BASARRI-BIDIAK KONPONTZEN

Udalak, 2011ko Aurrekontuetan jasotakuari jarraituta, 190.000 euro erabiliko ditu aurten basarri-inguru batzuetako bidiak konpontzeko biharrek pagatzeko. Kopuru horretan Debemen alkartiaren bittartez Foru Aldundixak emondako diru-laguntza sartuta daguala argitu dabe agintarixak. Barrizatu eta konponduko dituen proiektuak Altamarira Goikoa, Arondo eta Mugitza Zahar basarri inguruari lotutakuak dira.

### ANDREN ALKARTE BARRIXA

Sanjuanak ate joka eguazela, aurreko hillian herriko hainbat andrak osatzen daben "Mujeres al Cuadrado" alkarte barrixa presentau eban alkatiak. Sortu barri daben alkatiak andren kontrako indarkerixaren ingurukuetan jardungo dau biharrian eta beste andren alkatiak moduan, honek be Andretxean eskinduko ditu bere laguntza eta zerbitzuak.

## Envasa-ko 31 bihargiñak kale gorrixan

MALLABIAKO INDUSTRIALDIAN DAGUAN ENVASA (ENVASES VASCONGADOS S.A.) ENPRESIA IXTEKO ERABAGIXA hartu dabe enpresa-buruak, 35 urtian plastikozko poltsen sektorian jardun daben enpresaren historixari amaieria holan emonda. Egoeria hori izanda, bertako plantilla osatzen daben 31 bihargiñak, 30 eta 58 urte bittartekuak, kale gorrixan geratuko dira tallarrak atiakiarekin batera. Azkenaldixan indarrian izan diran ERE-ak bittarte, gaiñera, bihargiñeri urte biko langabezixa kobratzeko aukeria, besterik ez jakue geratuko, eta biharrian jardun daben urte bakotzeko 20 eguneko soldatia pagauko



Enpresa eta bertako arduradunen gestiño eskasa salatu dabe bihargiñak.

detse, enpresiak ez detselako bestelako indemnazaziñorik ordainduko. Bihargiñak hainbat protesta egitten dihardue egunotan eta egoera honetara ailegatzeko arduraduna enpre-

sia eta bertako arduradunak egin daben gestiño eskasa dirala salatu dabe. Lan barik geratuko diran bihargiñak Ermua, Mallabia, Durango eta batez be Eibarkuak dira.

## Otaola Madrilgo adintxikuekin biharrera

REGINA OTAOLA (PP) MADRILGO ERKIDEGOKO ADINTXIKIKO ARAU-HAUSLIEN GIZARTERTZERAKO AGENTZIAKO ZUZENDARI IZENDATU barri dabe. Madrillera juaun aurretik, ICADEN Zuzenbide lizentziaduna dan Otaolak Eibarren emon zittuan lehelen-go pausuak politikan: 1995az geroztik, bestiak beste, Eibarren bertako Alderdi Popularreko bozeramaille kargua bete eban. 2007xan, Udal Hauteskundietan, Eibarren ez eze Lizartzan be aurkeztu eban bere



eleuduna da eta EAE maillan bere alderdiko idazkaritza ejekutibuan jardun izan da, Gipuzkoa maillan egindakuaren moduan.

hautagaitza. Eibarren ziñegotzi kargua lortu eban, baiña aktari uko egiñ eta Lizartzan alkate kargua betetzera juaun zan, EAE-ANV legez kanpo lagatzian popularrak han eskuratu zittuan 27 botuak horretarako nahikua izan ziran eta. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundixan 1999tik aurrera Deba-Urola barrutiak PP alderdixaren

## Arratietan txosnak ipintzeko eskaeriak

AURTEN ARRATEKO JAIXETAN TXOSNIA IPIÑI NAHI DABENAK GAURTIK HASITTA ETA HILLAREN 15-ERA ARTE izango dabe eskaeriak presentatzeko aukeria, Pegor-

ran. Zerbitzuetako arduradunak aurreratatu dabenez, behiñ eskaera guztiak aurkeztu eta jaso ondoren emongo dabe ezagutzera billeria egitteko aukeratutako eguna eta jaixetan

zenbat txosna ipiñiko diran eta bakotxak izango daben neurrixa txosnetarako daguan tokixaren arabera ziheztuko dabela argitu dabe. Bestalde, Arrate egunian roskillak saltzeko postua ipiñi nahi dabenak horretarako eskaeria eguaztenerako, uztaillaren 13rako (13.30xetarako) presentau biharko dabe Pegoran. Eskeria aurkezteko bete biharreko inpresua Pegoran bertan eskuratu leike edo, nahixago izan ezkeru, internet bittartez deskargau ([www.eibar.es](http://www.eibar.es) Udalaren webgunetik).



## Juan Serrano Artisten Elkarteko presidentia hil da

JUAN SERRANO MORENO, AZKEN URTIOTAN EIBARKO ARTISTEN ELKARTEKO PRESIDENTIA IZANDAKUA martitzenian hil zan, 85 urte zituala eta famelixakuak eta lagunak eguaztenian emon zetsen azken agurra, San Andres elizan ospatutako hillela-elizkizunian. Pagaegi kalian egoitza dakan Eibarko Artisten Elkartik gure herriko 167tik gora artista hartzen ditu eta urtian zihar hainbat erakusketa zein beste-lako jarduerak antolatzen ditu.



## anzorik anzo



### Matsarixako ibarra ospitalerako

**Aralar taldekuak aste honetan komunikabidietara bialduta-ko idatzizak ospitalarendako beste kokagune baten euren proposamenaren barri emoten dau.** Oñi hurrengo Aralarrekuak Udalian presentau daben proposamenak diñuanari jarraituta, Matsarixan, Pagaegiko ibarran libre daguazten terrenuak ospital berrixa egitteko aproposak izan leikiatzela pentsatzen dabe: Pagaegi basarrixaren inguruko lurak 43.000 metroko azaleria daka eta, Aralarreko ordezkariaren berbetan, *“ospitalak bihar daben tokixa egotiaz gain, ondo komunikautako ingurua be bada eta, gaiñera, Valenciagak bete eban orubia eroitiak eskatzen daben 5’5 millioi euroko inbersiñua egitteko premiñarik ez dago”*. Bestalde, aittatutako ibarra atzera be lurrarekin betetzeko lizentzia 2004an onartuta egon arren, industriarako lurzoruak sortzen jardun dabenian hori tokixori kontuan ez hartziarekin *“harrittuta”* geratu dirala diñue, *“batez be Polo Teknologikua Erisonora bialtziak eragin dittuan kaltieri begira ipintzen bagara”*.



### Ikasturtiari agur La Sallen

**ERRETRATUETAN IKUSTEN DITUZUEN IKASLIAK ETA IRAKASLIAK KURSUA AMAITU BARRI DABEN** honetan, La Salle ikastetxetik helarazi deskuen idatzizak diñuanari jarraituta, Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak (ISE) eta La Salleko Zuzendaritzak ikasliak zoriondu nahi dittue,

*“2010-2011 ikasturtian lortu dittuen emaitza onak dirala-eta. Bide batez, eskerrak emon nahi detsaguz irakasle, fameli- xa, IGE, laguntzaille eta komu- nikabidieri, egindako biharra- rengaittik eta gure hezkuntza proiektuan eragille izatiagaittik. Opor zoriontsuak izan ditza- zuela guztiok”*.

### eibar kaleka

#### Txaltxa Zelai kalia

Kaliak zein bere azpiko parkiak gaur egunian desagertuta dagan basarrixari zor detse izena. Isasixan, udaletxetik 100 metrora egon zan basarrixia, Txaltxa jatetxiaren atzeko partian eta terrenuak Mekolaraiño aillegatzen ziran.

**Pegora kopurua: 15**

**Erroladatutakoak: 533**



asteko

5/5

datua

millioi euroko inbersiua egingo dau Udalak, ospitala egiñ ahal izateko zein Amaña-Eroski lotzeko pasagunia jasotzeko bihar daben Torrekua-Otaolako orubia horren jabia dan Eibar Berri enpresari pagatzeko.

Oingo jabiak pagautakua 3.350.000 euro + %16ko BEZA (536.000 euro) izan zan.

## Lantegi Eskolako hamar bihargin kalera

**EIBARKO LANTEGI ESKO-LAK ATIAK ITXIKO DITU ETA, HORREKIN BATERA, AZKEN HOGEI URTIOTAN** bertan biharian jardun daben hamar bihargiñak kalera juingo dira. Eibarko Udalak Lanbideren finanziaziño faltiari egotzi detsa kaleratzia eta erabagixa behin-behiñekotzat jo dau. ELA sindikatuak, ordia, kalera-tziak behin-betikuak izango diran susmua dauka, Udalari Suspensiñoko Enplegu Erregulaziño espedientia aurkezteko eskatu detselako eta halanda be honek bestelako jarrera hartu dabelako. ELA sindikatuak azaldutakuaren arabera, "Lantegi Eskolaren jarduerak INE-Maren eta Eibarko Udalaren dirua jasotzen eben, baiña aurtan Lanbideren eskumen aldatketak proiekturako dotaziño ekonomikua atzeratzia ekarri dau". Miguel de los Toyos alkatiaren berbetan, baiña, "horrek ez dau esan nahi finanziaziñorik egongo ez danik". ELAren eritziz "enplegu-erregulaziñua alde guztiendako neurri kome-nigarria zan, batetik, bihargi-



ñak lanpostueri eustia ahalbidetzen ebalako eta, bestetik, Udalarentzat kosturik ez ebalako ekartzen, horrekin batera kaleratze bidegabe baten kalteordaiña saihesten zalako".


LAB sindikatuak be kalera-tzien gaiñeko salaketia plaza-ratu nahi izan dau idatzi baten bittartez: "Herri baten garapenian, hezkuntza funtsezko zutabia da. Izan be, hezkuntzaren bittartez herri horrek aurrera egitten diharduen bittartian, herritarrak biharrezkuak diran ezagutzak, trebetasunak, balorriak eta bestelakuak eskuratzaren bittartez herri horrek aurrera mundu maillako hezkuntzaren inguruko helburu batzuk, eta

horretako bat populaziñuak ahalik eta formaziñorik haundi-xena izatia da. LAB sindikatu-tuan testuinguru horretan kokatzen dittugu eskola-tallarrak: urtiotan gazte askok ofiziuia ikasi dabe eta, horrekin batera beste balore batzuk bereganatu eta jendia ezagutzeko aukeria be euki dabe, baiña gure alkate jaunak ez dau eskoliaren etorkizuna bermatzeko gaittasunik euki".

Gauzak holan egonda, sindikatu-etako ordezkariak kalera-tzien inguruko salaketia egitteko mobilizaziñuak deitzen dihardute eta, horren harira, atzo eguardixan Untzagan konzentraziñua egin zan.

## Udako ordutegixak martxan honezkero Pegoran eta Portalean

**UZTAILAREN 1-IAN SARTU ZAN INDARRIAN UDAKO ORDUTEGIXA PEGORAN:** irailaren 15era arte bakarrik goizez hartuko dabe jendia, 09.00etatik 13.30xetara. Irailaren 16tik 30era bittartian, barriz, astelehenetik eguenera 09.00xetatik 13.30xetara eta 17.00etatik 19.30xetara zabalduko dabe bulegua. Barixakuetan, bakarrik goizez zabalduko dabe (09.00etatik 13.30xetara). Telefono bidezko (010 / 943708400) harrerria egitteko ordutegixa, barriz, 08.00etatik 14.00etara bittartekua izango da irailaren 15era arte eta irailaren 16tik 30era 08.00etatik 19.30xetara astelehenetik eguenera eta 08.00etatik 14.00etara barixakuetan. Portalean uztailla eta abuztuan indarrarian egongo dan ordutegixa hauxe da: 09.00etatik 21.00etara astelehenetik barixakura (uztaillian, 25ian itxitta) eta 09.00etatik 14.00etara abuztuan (astelehenetik barixakura, abuztiaren 15etik 19ra itxitta).



Bidebarrieta eta Urkizu inguruko saria dihardute barriztatzen egunotan. / SILBIA HERNANDEZ


## Edateko uraren saria barriztatzen

**GIPUZKOAKO URAK UDIA APROBETXATZEN DIHARDU EDATEKO URAREN SARIA BARRIZTATZEKO BIHARRERI EKITEKO.** Zatika garatzen diharduen planari jarraituta, oinguan Bidebarrieta eta Urkizu Pasialekuko saria barriztatzia tokatzen da, hain zuzen be

Julian Etxeberria kaliarekin bat egitten daben tokixan hasi eta Urkizu Txonta kaliarekin gurtzatzen dan tokiraiño. Honezkero hasitta daguazen biharrak amaitzeko bost hillebeteko epia dago aurreikusitta, "sanjuanak pasauta eta sanandresetarako amaittuta".

Lau hillabete be ez dittu bete autobidietan gehixenez 110 km/h-ko abiadura izatiaren neurrixak. Uztaillaren 1-etik aurrera gehixen jota 120 km/h-kua da barriro be abiadura eta eztabaida kalera urten da barriro be. Espaiñiako Gobernuaren berbetan 450 millioi euro aurreztu dira petrolixuan hillabete hauetan.

## Zelan ikusten dozu errepidietako abiaduran barriro 120ra bueltatzia?



**MARKEL IRAOLA**  
29 urte  
bihargiña

Ondo ikusi dot barriro 120ra igotzia, baiña 130era ipiñiko neuke autobidietan eta 110era generalian. Ikusi dot 110era jaitsi ebian jendiak neurrixa errespetatzen eba. Nik ez hainbeste. Neurrixak ez daka gauza positibo askorik, ez dagualako alde handirik 10 km/h-ko tartian.



**CONCHI SOLAS**  
53 urte  
etxeoandria

Junixoko 28xan Marbellara 110eko abiaduran jua eta uztaillako 5ian 120ra bueltau nintzan. Aldia haundixa da denporian eta txixixa kontsumo aldetik. 110era tentsiñuarekin zoiatz gehixegizko abiaduria ez pasatzeko, eta 120ra trankillago. Errorria izan dala begitnantzen jata.

**M<sup>a</sup> JESUS GARATE**  
62 urte  
autonomua

Batuendako tontokerixia da barriro be 120 km/h-ra bueltatzia. Esan dabe 200 millioi euro aurreratu dirala abiadura gehixenez 110 km-tan ipintzen. Holan bada, zergaittik ez jarraitu? Ez daka zentzurik. Beste batzuk pentsatzen dabe neurrixak ez dakala eragiñik ixa ezertan.



**GORKA JAIO**  
27 urte  
bihargiña

Txarto begittandu jatan aurretik 110era bajatzia, eta txarto begittantzen jata oin hain bizkor 120ra igotzia. Denpora gehixagoz eutsi biharko zala begittantzen jata, ez da logikua hain bizkor aldatzia. Nik egixa esan ez dot igarri aldaketia, ixa ez naizelako autobidietan ibilli-eta.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberrrieta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laboa

Egoibonen (Signo poligonoz)

Partikular, natua eta osaguri etxei zerbitzuak

Koroak - Eskelak - Urteumanoa etelak

Eskel Hesi osoko ospitalein bertzen zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko Inozkoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funerariak laboa

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Urdaiazpiko iberikoa  
Etxeko foie-a  
Txipiroti eta tipulin nahaskia

Legatza laban edo  
Bakailaoa pikilloen saltsarekin

Karrillera onddo-saltsarekin edo  
Solomoa plantxan

Degustazio postrea edo  
Txokolate moussea edo  
Limoi sorbetea cavarekin

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik barixakura  
EGUNEKO MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

## Motor-hotsa SAN KRISTOBALLEN

Ziztu bizian hasiko dituzte jaiak San Kristobalen. Motorren antzera. Egia esan, hasi dituzte, izan ere, joan den asteburuan tute txapelketa jokatu zen. Txupinazoa, hala ere, gaur eman da Orkestra-

ren kalejirarekin lagunduta eta Francisco Nuñez Perez auzolaguna omenduz.

Ekintzaz beteriko programa osatu du jai-batzordeak. Gaur bertan, arratsaldean, umeen-jokoak egongo dira eta tortilla, txori-  
zoa, jamoia eta gazta banatuko dira auzoko tabernetan.

22.30etan Bon Joviren kontzertua eskainiko da pantaila erraldoian eta ondoren, zuzen-zuzenean, Medina Azahara talde andaluziarra arituko da Lambretta Klubaren laguntzarekin.

Biharkoan Lambretta motorrak jabetuko dira auzoaz goizean, eta San Kristobal



Umeentzako ere izango da tartirik San Kristobal jaietan. / MAIALEN BELAUSTEGI

aldapan erlojupekoa jokatu dute. Gauean, afari-herrikoia egingo da, eta 60 eta 70. hamarkadetako festa egingo da Nuevas Amistades Peligrosas taldearen kontzertuaren aurretik.

Domekan umeentzako jokoak egingo dira eta arratsaldean, Gorriti bere animaliekin hurbilduko da auzora. Araba orkestrak musika ipiniko du eta azken trakak amaiera emango die jaiak.



Udaleko ordezkariak aurreko barixakuan egindako auzoko jaien aurkezpenean. / EKHI BELAR

### MANUEL MARTÍNEZ (MEDINA AZAHARA): “Hainbat belaunaldi batzen dira gure kontzertuetan”

**- '30 años y la historia continúa' da Medina Azahararen azken lana. Nolako izan da zuen historia 30 urte hauetan zehar?**

Ba pentsa, 30 urte asko dira eta denetarako denbora ematen du. Momentu oso onak bizi izan ditugu, eta beste batzuk ez hain onak. Baina, egia esan, beti oso polita izan da dena. Kontzertu askotako eta milaka konposaketako urteak izan dira, eta politena da oraindik hemen jarraitzen dugula.

**- Lan berriarekin, kontzertuak eskaintzen... goian jarraitzen duzue.**

Bai. Azaroan grabatutako diskoa da azkena, zuzeneko 30 abesti ditu DVD-an eta sekula entzundako beste 8 kantu CD-an. Egia esan hainbat single irratian entzuten

ari dira azken aldiak, bata zuzeneko abestiaren eta bestea inoiz entzundakoa. Gutxienez hemen, Andaluzia aldean entzuten dira, ez dakit hor Euskal Herrian berdin gertatzen den. Espero dut baietz.

**- Diskoan esan bezala, historiari jarraitzen du. Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?**

Ilusio handiarekin, zapata berriak dituen umeak bezala (barreak). Ez diogu diskoak grabatzeari laga, baina orain Avispa diskoetxera bueltatu gara eta elkarlanean ari gara honek jarraipena izan dezan. Pozik gaude, eroso, eta lan berri honekin martxan gaude. Leku askotan kontzertuak eskaintzen gabilta eta diskoaren salmenta ondo doa.

**- Eszenatikietan 30 urte eman ostean, nolako da zuen kontzertuetan biltzen den jendea?**

Hainbat belaunaldi batzen dira. 80. hamarkadan ezagutu gintuen jendea dago eta baita azken lanekin ezagutu gaituztenak ere. Pentsatzen dut publikoaren %85-90a bera dela, baina betidanik jarraitu gaituztenak ere hor daude. Oso polita da kontzertuetara batera doazen guraso eta seme-alabak ikustea. Lehen eta orain gustotalea zarela esan nahi du horrek.




**- Orain dela urte batzuk Eibarren kontzertua eskaini zenuten. Nola gogoratzen duzue?**

Ezin dut esan ez zitzaizkida gustatu, bestela nire aurka arituko nintzateke (barreak). Ez, egia esan ondo gogoratzen dut, polita izan zen, jende askorekin eta, batez ere, lagun askorekin. Kontzertu asko eskaini ditugu Euskal Herrian eta han jarraitzaile asko ditugula dakigu.

**- Eta gaurkoa nolako izango da?**

Izugarrizkoa izango delakoan nago. Hainbeste urte izanda, kantu asko daukagu eta horrekin jolasten dugu. Ia saio guztietan errepertorioa aldatzen dugu beti berdina ez eskaintzeko, bai kontzertu askotara datozenak aspertu ez daitezen, bai guretzako, aldatzea gustatzen zaigulako. Seguru nago publikoari kontzertua gustatuko zaiola eta disfrutatuko dutela.





*Jaien nondik norakoak azaltzen dituen liburuxkak dioen bezala, "zerutik gertuen" dauden festak dira Amañakoak. Lurrean izanik, zeruraino eraman zaitzake auzo horretako giroak. Ez duzula sinesten? Hurbildu bertara eta probatu.*

## AMAÑAN jaiak ez dauka amaierarik

Jaiak ez du atsedenik izango gaurtik hasita domekara arte (nahiz eta Amañako Jaiak hilaren 15ean amaituko diren ofizialki). Gaur 19.00etan Igor Aldalur Bilduko zerrendaburuak botako du txupinazoa eta horrekin batera kalejira egingo da Tolosako Ori txarangarekin. Jokoeak eta ikuskizun batek hartuko diote txanda, eta

Miren Gisasola trikitilariak emanaldia eskainiko dute eta 17.15etan Gorriti izango da berri bere abereekin. Amaña-Urko-Amaña krosak 18.00etan izango du hasiera eta 19.30etan herri-kirolen txanda iritsiko da. Entziero txikiaren ostean parrillada erraldoia egingo da 400 pertsonarentzat (6 eurotan), eta afalostean helduen



Jaien aurkezpena astelehenean egin zen El Corte Inglés-eko terrazan. / EKHI BELAR

Gorriti bere abereekin ibiliko da auzoan. 21.00etan, bestetik, entziero-txikia egingo da.

Gaurko gaua rokez blai igaroko dute Amañara hurbiltzen direnek. Surfin kaos, Gatillazo eta Atom Rhumba taldeek giro-tuko dute plaza.

Biharamonari aurre egiteko, bihar herri-bazkaria egingo da 14.30etan (euro bitan, izena eman behar da edo ticket-a hartu). 16.30etan Jone Uria eta



danborrada egingo da. Piroteknia Zaragozanak kolorez margotuko du zerua eta Nafarroako Ingenio orkestraren eskutik berbena egongo da.

Jai-egun biren ostean indarrak gorde beharko dira domekarako, ekintzarik ez baita falta. 11.00etan auzoko hildakoak omenduko dira, 12.00-etan salda eta txorizoa banatuko da eta 12.30etan umeen danborradari emango zaio hasiera. Arratsaldean umeentzako jolasak egingo dira eta Txikilandiaren ikuskizunaren ostean, txokolata eskainiko da gailatekin. Umeak protagonista diren egun honetan, 'Zirkus Mirkus' kaleantzerkia egingo da 19.15etan. Eta hiru egun hauei amaiera emateko, 20.15etan Mariachi Imperialek mexikoko doinuak ekarriko ditu auzora.




## EVARISTO: La Pollatik Gatillazora

**IKUSMIN HANDIA SORTZEN DUTE AMAÑAKO JAIEN KONZERTUEK** eta ez soilik Eibarko herritarren artean, leku askotatik baitator jendea auzo honetan eskaintzen den musikaz gozatzera. Aurten euren itxaropenak asetzeko moduko kartela antolatu du jai-batzordeak eta punk-aren mito bat ekarriko dute gurera: Evaristo Páramos.

La Polla Records taldearekin oso ezaguna egin zen Evaristo eta taldeak bere bidea eten bazuen ere, musikaren munduan jarraitzen du Gatillazo taldearekin. The Kagas eta The Meas izeneko proiektuei ekin zien Evariston La Pollak azken akordea jo zuenean, baina Gatillazorekin lortu du egonkortasuna. 'Sangre y mierda' diskoa kaleratu du taldeak aurten, euren laugarrena, eta Mexikon izan ostean Amañan izango dugu gaur gauean.

Aurretik, hala ere, Surfin Kaos donostiarrak arituko dira plazan. Ia hamar urte bete ditu taldeak eta disko bi kaleratu dituzte ordutik. Punka eta rocka uztartzen ditu hirukoteak, eta ikuskizun bitxia sortzen dute zuzenekoetan.

Surfin Kaos eta Gatillazoren ostean, Atom Rhumbak hartuko du lekukoa eszenatoki gainean. New Yorken 70. hamarkadan egiten zen rockaren eta 50. hamarkadako rock&rollaren arteko nahasketa egiten du talde bilbotarrak. Zuzeneko subertsiboarengatik dira famatuak eta oso kritika onak jaso dituzte euren lanengatik.



gaurerako.

Mito bat eta talde gazte bi, indartsu datozenak eta Amañan bilduko direnen gorputzak astinduko dituztenak. Nahasketa ederra gaur gaurerako.

*Sorpresa hartu eban Lorenzo Beltránek jakiñ ebanian Korta Fundaziñoko Sarixen 11. ediziñuan sarixa emongo zetsela berak enpresia sortu eta azken hamarkadotan egindako ibilbidiarengaittik. Proposau be, bere loiba batek proposau eban Lorenzo Beltrán sarixa jasotzeko. Halanda be, berak "biharra besterik" egiñ ez dabela diño; hori bai, pozik dago Beltrán Ascensores y Montacargas sortziaz eta sarixa jasotziak "ilusiuua egin" zetsela aitortzen dau. Ekitaldixa ekaiñaren 29xan egin zan Gasteizeko Lehendakaritzan eta, instituziño, alderdi, enpresa eta gizarte erakundietako ordezkariekin, han izan ziran lau sarituak: eibarrarekin batera, Juan Luis Arregi (SEA Arabako Enpresarixuen Elkartiak proposatuta), Esteban Sudupe (Adegik) eta Alfredo Samper (Cebek-ek).*

## Bizitza osuan egindako biharrak merezittako sarixa

**H**ouescako Bolea herri-xan jaixotakua da Lorenzo Beltrán. Hamahiru urterekin laga zittuan ikasketak eta aittarekin hasi zan biharrian: "Herriko eta inguruetako elektrizistia zan bera. Hamazortzi urterekin Sabiñánigoko egur kargadora batera

*juan nintzan eta, bertako lankide guztiak Euskal Herrikuak ziranez, Donostiara etortzeko animatu zesten, lan hobiagua aurkituko nebalakuan. 1950-eko hamarkadaren hasieria zan Iberdueron hasi nintzanian biharrian, handik urte bira soldadutza egittera tokau jatan*



**Lorenzo Beltránek ez detsa "merittu haundirik" emoten berak egindakuari: "Enpresa bat sortu eta urte guzti hauetan aurrera etarutzen saiatzia besterik ez dot egin" diño berak.**




*arte". Handik itzulitta, lana billatu bihar izan eban barriro eta baita azkar topau be: "Kolakaziñua lortu neban elektrizidade enpresa batian. Hala-kuan, Azkoittira juan bihar izan nintzan, Zubillaga enpresako instalaziño elektrikua egittera eta han ezagutu neban gaur egun nire emaztia dana", ja-rraitzen dau Lorenzok.*

Hainbat enpresatik pasatuta, Siderúrgica Aristrain-en (Arce-lorMittal-eko partaidia gaur) hasi zan biharrian eta enpresak emondako aukeria aprobetxat-zia pentsau eban: "Biharrarekin batera, pisua be eskintzen zes-kun; eta ezkontzia be aurreiku-sitta genkagunez, aurrera esan genduan". Enprendedoria, bai-ña, gizona, eta, enpresa batetik bestera ibilli bihar-rian, bere kabuz enpresia monta-tzeko gogua edo harra baekan be-re barruan. Ho-rrekin batera, gu-rera etortzeko erabagixa.

### Eibarren igogailluekin

Aristrain eta CAF enpresak erraldoiegixak ziran ("bihargi-ñak, taillar auxiliarrak, horni-tzailliak... guztiak egitten eben lan eurentzat") eta Eibarrera etorri zan Beltrán. "Hamen ba-riedade gehixago eguan. En-presak, txikixaguak izatiaz aparte, gehixago ziran eta di-bersifikatuaguak. Eibarrek au-ker a gehixago eskintzen eban: hori da, azken batian". Elektri-zista moduan hasi bazan be, berehala konturau zan ez eguala espezialistatik elektro-mekanikan: "Tailler elektriko asko bai, baiña elektromekani-kan hutsunia eguan, kanpotik etortzen zalako jendia lan kon-kretu bat egiñ eta barriro buel-



## Erresuma Batura, Frantziara eta Txekiara esportatzen

**ETXIETARAKO IGOGAILLUAK EGITIAZ GAIÑ**, beste edozein establezimendurako eta enpresendako montakargak egiten ditue Beltránen. Krisixaren eragiña berehala nabaritu eben, oin dala lau bat urte: *“Lehelengo urtian jaitsieria drastikua izan zan: etorkizuna ziur ikusten ez dozunian, jendiak konserbadore jokatzeko dabela. Gaiñera, konstruktziñua geratzen danielan, argi dago gure lana be proporzio berian jaisten dala”*. Halanda be, urteeria produktu espezializatuan eta errehabilitaziñuan aurkittu dabe:



Korta Fundaziñuaren ekitaldixan aurten saritutako lau enpresarixuak.

*“Etxe barrixendako igogailluak modelo estandareri jarraitzen detse. Baiña ez da hori gertatzen errehabilitaziñuan, etxebizitza zahar batian igogaillua ipiñi bihar dozunian. Holakuetan espazio-arazuak, beheko dendeekin edo buhardillekin egiten dozu topo... eta halako kasuetan neurria egindako igogailluekin asmatu bihar dozu. Hor asko barritu dogu eta produktu espezializatuen patente bi dittugu”*. Hortik aparte, argi ibilli dira Beltránen eta esportaziñuari be ekin detse: *“Internazionalizaziñuan hasi giñala badira bost urte. Gaur egun gure produktziñuaren %30 kanpian saltzen dogu. Merkatu printzipalenak Gipuzkuan, Bizkaian eta Nafarroan badiittugu be, kanpian asko dihardugu lanian Erresuma Batuan, Frantziara eta Txekian, Ekialde Ertaiña ahaztu barik”*. Zailla ikusten dabe oin dala urte batzuetako urte gozuetara bueltatzia, *“baiña enpresa txikixak eta ertaiñak barriro be erakutsi dogu krisi sasoietan gehixago borrokatzen dogula eta ez dogula amore emoten”*.




Ekitaldixaren irudixa. Lorenzoren eskuman bere semia, gaur egun enpresiarene ardura daramana.

tatzeko. *Elektromekanikako ezagutza batzuk banittuan eta, pisuak eraikitzen hasi ziranez, igogailluak instalatzen eta montatzen hasi nintzan. Geruago etorriko zan igogailluak egiten hastiarena”*.

Igogailluen arluan egindako ibilbidia ez da nolanhikua izan. Espaiñako lehelengoko pyme-a (enpresa txiki eta ertaiñak) izan da kalidade maillak lortzen. 1997xan arautegi barrixa onartu zan European ISO9000 lortzera bihartzen ebana, *“bai igogailluetako instalatzaillari eta baita produktuari berari be”*. Holan eskurau eban Beltránek ISO hori: *“Seigarrenak izan giñan. Gure aurretik lortu eben bakarrak sektoria lideratzen daben bost*

*multinazionalak izan ziran”*, diñosku Lorenzok.

Ikasketa haundirik barik be, egindako ibilbidiaz harro dago enpresarixua gauza barrixari



Igogailluetako esparruan, produktu espezializatuetan eta errehabilitaziñuan aurkittu dabe urteeria, batez be, Beltrán Ascensores y Montacargas-ekuak.

egokitzen jakiñ izan dabelako eta sasoi baxotxera egokitzen jakiñ izan dabelako. Bizi dogun krisixa gogorra izango dalakuan badago be, *“egon gara*

## “Eibarrek badaki kanpoko jendia hartzen eta urten-bidiak eskintzen”

*txarrago”* diño berak. *“1983kua gogorragua izan zan. Orduan dana geratu zan: konstruktziñua, aktibidade industrial... Kopuru haundixetan, izan leike hau sakonagua izatia; baiña gaur egun enpresok askoz be prestatuago gagoz orduan baiño. Oin dala 30 urte ez gengozen egoera berian”*.



### Optimista etorkizunarekin

Oin bizi doguzen sasoi gogorrekin jarraituz, *“Europaren parte garenetik, egoeria asko hobetu da eta indar gehixago dakagu. Halanda be, urtiak jua urtiak etorri, Europako herri aurreratuenak aurrian jarraituko dabe, lokomotora lana egiten, eta guri kostauko jaku euren maillara heltzia”*, diño berak. Eibarrek jende enprendoria izaten jarraitzen daben galdetuta, baiezkuan dago: *“Gure herrixak badaki kanpoko jendia hartzen eta baita urten-bidiak billatzen be, gauza barrixetan arriskatuz. Horregaittik, langabezixa gorutza badoia be, hamen izango da irteeria”*.

Mende erdixa egin dau Lorenzok bestiendako biharra egittiarri laga eta bere kabuz jardutia erabagi zebanetik. Jakiñ izan dau, gaiñera, sasoi baxotxera moldatu eta egokitzen eta oiñ etxian bertan daka enpresiarene jarraikortasuna ziurtatuta, seme-alabak ondo ikasi dabe-eta egin biharreko bidia.

TEEN-  
AJEA



**Ez da Irunezaino joan behar San Ferminetako txupinazoa zuzenean bizitzeko. Eibarren ere San Ferminak presentzia izan du eta animalien aurrean korrika egiteko aukera izan zuten askok (Gorritiren abereen aurrean). Astixak antolatuta, herriko umeek harrera eman zioten Sanferminei eguaztenean.**

**EKHI VEGAS, 'SAN FERMIN':**

**“Giro ona bizi da Afariketetan”**

**- Nola joan zen Sanferminetako txupinazoa eta aurreko kalejira?**

Nahiko ondo. Umeak emozionatuta zeuden eta polita izan zen. Ni, San Ferminen paperean, aurretik joan nintzen bide guztian eta berezia da hainbeste ume gidatzea. Giro polita bizi izan zen.

**- Egon da entzierrorik?**

Txupinazoaren ostean Gorriti egon da Untzagan bere animaliekin, eta sokamuturra, txerri txoak... atera zituen umeek ondo pasa zezaten.

**- San Fermin izan zinen. Zein zen zure eginbeharra?**

Ni nintzen liderra (barreak). Hasiera-hasieratik aurretik joan nintzen, pregoilari biak alboan nituela. Torbio Etxebarriatik Untzagaraino jo genuen; ondoren udaletxera igo eta han pregoia bota zuten umeek. Baita gozokiak ere, noski. Nire lana aurpegia ematea izan da San Fermin bezala.

**- Sanferminak albo batera lagata. Nola doa aurtengo**

**‘Oporrak Afariketetan’?**

Oso ondo. Gure taldea aste honetan hasi da, baina beste batzuk aurrekoan hasi ziren. Martitzenean Orion egon ginen eguraldi ederrarekin (asko eta asko erre egin ginen eguzkitan jeje); eguaztenean Sanfermina izan genuen ekitaldi nagusi; atzo Urkiolan izan ginen, mendi pixka bat egiten; gaur pizza lehiaketa egin dugu Gaztelekuan... oso plan onak daude antolatuta, askoren gustoa asetzeko modukoak. Irteerak, eskulanak... gaztetxoek ondo pasatzeko aukera asko dituzte. Horrela egingo ditugu zetaileko lehenengo hamabostaldiko aste bi, datorren barixakuan, hilaren 15ean, amaituko baitugu.

**- Nola portatzen dira umeak?**

Oso txintxo! Benetan. Badago baterenbat pixka bat bihurriagoa dena, baina orokorrean oso ondo portatzen dira. Egia esateko, oso giro ona dago Afariketetan.



AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



**Egiguretarren, 18**

Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

**● tartak**  
**● enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

*Bidaiatzeak gauza asko ematen dizkizu. Beste leku bat, beste kultura bat, beste pertsona batzuk ezagutzeko gauza askotaz jabetzen zara eta aberastu egiten zaitu pertsona moduan. Zerbait irabazten duzu. Ez da ezer materiala izango, baina seguru gehiengoak gehiago baloratzen duela hori.*

## Bidaiatu, lehiatu eta irabazi

Sarreran azaldutakoaz gain, hala ere, gaur egunean zerbait materiala irabazi dezakezu bidaiatzeari esker (zure barrenerako irabazten duzunaz gain, noski). Oporretaz gozatu, irten, ondo pasa eta denetarik egin ostean, pentsa etxera itzuli eta sari bat jasotzea. Erakargarria, ezta?

Bada udan postal, argazki eta ipuin lehiaketak ipini dira martxan azken urteotan eta denbora horretan bizi izan duten denbora onaz gain, beste zerbait eraman izan dute boltsikora askok. Aurtengoan, horrela, zu izan zaitezke irabazle hori eta oraindik sasoiz zaude

argazki onak atera edo testu ederrak idazteko.

### Abentura istorioak

BBK Land-ek Bidaia eta Abentura Istorioen I. Lehiaketa antolatu du aurtengo udarako. Antolatzaileren berbetan kontua ez da istorio harrigarriena kontatzea izango, baizik eta modu literario batean bidaia erreal edo asmatutako baten istorio bat islatzea. Jack London, Robert Louis Stevenson eta Javier Reverteren (epailea izango da) oinordekoak bilatzen dira lehiaketa honetan.

Ez dago adin mugarik lehiaketan parte-hartzeko, eta gu-



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX



txieez 10 orrialde eta gehienez 15eko lanak izan beharko dira. Lanak uztailearen 30a baino lehenago entregatu beharko dira [concursos@bbkland.com](mailto:concursos@bbkland.com) helbidean eta irailan jakingo dira irabazleen izenak. Sariari dagokienez, lehenak 2.000 euro irabaziko ditu, eta akzesit biek 500 euro bakoitzak.

### Uda erretratatu

Digitalizazioak argazkilaritzaren demokratizazioa ekarri-

zuen, modu baten esatearren. Gaur egun ezin da pentsatu argazki kamerarik gabeko bidaia batean. Argazkiak han eta hemen, ia ez da gauzarik gelditzen erretratatu barik. Hainbeste argazkiren artean seguru onak eta oso onak daudela; beraz, zergatik ez zerbait irabazi horregatik? Berriak Udako Argazki Lehiaketa antolatu du oporretako erretratu onena saritzeko.

Argazkiak irailaren 15a baino lehenago bidali beharko dira helbide honetara: Berria; Martin Ugalde kultur parkea; Gudarien etorbidea, z/g; 21400; Andoain, Gipuzkoa; irakurle@berria.info. Diapositibak, paperezko argazkiak eta argazki digitalak onartzen dira, eta argazki digitaletan honako ezaugarriak bete behar dituzte: 1.800 x 1.200 pixel, gutxienez, eta jpg formatua. Argazki onena ateratzen duenak 12,2MP-ko Sony Cyber-shot argazki kamera irabaziko du, eta bigarrenak lagun birentzako gastronomia eta erlaxaketa programa La Perla Talasoterapiari.



Argazkilaritza nahiago duenak Berriaren lehiaketan du saria jasotzeko aukera.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

## EMAKUME ETA GIZON MODA

# Valenciaga

### KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**

**HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK**

Errebal, 14  
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura



Hortz, konplexu eta  
kompletu harrarain  
Hundelako kontrol...

PREBENTIBARAKU - Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**

Inbarrak  
gostetu egiten gaitu

implante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



RPS 04/02  
**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinenzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENENK MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa  
Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA  
Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ  
San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia  
**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**BIDEBARRIETA, 48 EIBAR**  
943 203050  
**ERDIKO KALE 54 ARRASATE**  
943, 799746  
**PODOLOGIA**  
Ereiko Klinikak  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**  
**Mainer Lopez Etxebarria**  
Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88  
65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO T. ORTOPEDICO**  
**Iñaki Rivero Zabaleta**  
Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)  
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA**  
**Arrate Garitaonandia**  
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK  
**Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66**  
a\_garitaonandia@terra.es

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**  
**Ψ**  
**Oscar Mondragon Lili**  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)  
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin  
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

*Harriak inork baino hobeto ezagutzen ditu Iñaki Perurenak. 40 urte eman ditu harriak jasotzen eta horien inguruan bizi izan da ordutik hona. Harriak jasotzeaz gain, ordea, bere herria gehiago ezagutzeko aukera eman dio kirolak Perurenari, eta esperientzia hori kontatzera etorriko da datorren martitzenean, uztailaren 12an, Kultura arratsaldeko 19.00etan.*



## IÑAKI PERURENA: “Euskaldunok harritik kirola egin dugu”

**- ‘Harri eta herri’ izenburua daraman hitzaldia eskainiko duzu martitzenean Eibarren. Imajinatzen duzu Euskal Herri bat harririk gabe?**

Beno, batzuetan nahikoa deserto ere badago, baina behintzat orain ezagutzen dugun Euskal Herri hontan harri asko dago.

- ...

Horrekin esan nahi dut Boisen, Nevadan badela Euskal Herria. Hemendik hara artzai bezala joandako euskaldunek Euskal Herriaren zati bat egin dute eta hura ez da hau bezalakoa. Edo Argentinan ere egin dute eta ez da hau bezalakoa. Beraz, badago han ere Euskal Herria. Hemendik hara joandakoek egin dute han Euskal Herri txo bat, baina hemengo Euskal Herriak harri asko ditu.

**- Zer zor dio Euskal Herriak harriari?**

Ez dut uste ez harriak Euskal Herriari, ez Euskal Herriak harriari zorrik dienik. Elkarlana bai.

**“Merezi izan du  
40 urtetan  
harriak jasotzeak”**

**- Eta zuk, Iñaki Perurenak, zer zor diozu, zerbait zor badiozu behintzat?**

Aurreko erantzunak nire kasuan ere balio duela pentsatzen dut, elkarlana izan dela. Ni dena ematen saiatu naiz harriari, eta harriak dena eman dit niri.

**- Harri motak bezala, Euskal Herrian ere mota askotako jendea bizi da, modu ba-**



**tean esatearren. Eta askotan, harriekin gertatzen den bezala, talkak sortzen dira euren artean.**

Euskaltasuna bere baitan batzuk neurri batean eta beste batzuk beste batean dute bizi dira Euskal Herrian. Nahi izanez gero, horrela sailkatu daiteke mota bakoi-tza, euskaltasun maila zenbatekoa den aztertuz, baina tira, kontzeptu hori...

**- Euskaldunon eta harrien arteko harremana, beste gizarte askotan bezala, historiaurretik dator. Nolako harremana sortu da bion artean?**

Kultura guztiek garatu dute euren prozesua harriekin. Egipzioek piramideak egin zituzten, txinatar harresia hor dago, Inka eta Mayek ere harria landu dute, edo grekoek eta erromatarrek, eta baita guk ere. Bakoi-tzak bere modura.

**- Euskal Herriaren kasuan, harriarekin kirola garatzeraino iritsi da harreman hori.**

Bai, eta horretan aritu naiz orain arte eta jarraitzen dut oraindik. Hain justu hori azpimarratzen dut nik. Harria kultura guztiek landu dute, baina harritik kirola euskaldunok egin dugu, eta hori nolabait azpimarratzekoa dela uste dut.

**- Harrijasotzea: kultura, kirola ala biak?**



## “Harriak niretzat leiho eta kabi dira aldi berean”

Zuk aurretik aipatu duzu Euskal Herrian denetarikoa jendea dagoela. Kasu honetan ere, batzuentzat harriak jasotzea izan liteke kirola, beste batzuentzako kultura, beste askorentzako historia. Nire kasuan, hasi nintzenetik harria kirola bezala hartu izan dut, baina horrek ireki zidan bidea, eta leihoa bezala da niretzat beste gauza asko ikusteko ere.

**- Zer izan da zure bizitzan harrijasotzea eta horrekin lotutakoa?**

Nik esaldi bat badut: harriak niretzat dira leiho eta kabi. Leihoa da munda ikusteko eta kabia babesa eman didalako.

**- Nolako harremana daukazu zuk harriekin hainbeste urtetan elkarlanean ibili ostean?**

Harriak nire kideak dira edo ni naiz harrien kide. Urteetako elkarlan bat izan dugu eta elkarrekin harreman horretan, beste harreman askotan gertatzen den bezala, egoera gazi-gozaok daude, baina azkenean horrek osatzen du elkarlan hori.



Itxaxio bere semean izan du Perurenak erreleboa.

# EUSKAL EH ARRIA

*Itxaki Perurenak datorren martitzeneko hitzaldian harriak eman dion bizia eta harriarekin bizitzeko zentzua azalduko du.*

*Honako gaien inguruan jardungo du, batez ere:*

- Harria munduan eta euskaldunok harritik kirola
- Gure beste harriak: leizeak, margoak eta trikuharriak
- Gazteluak eta herri euskalduna bere burujabetza babesten
- Harriak jasoaz beste bideak aurkitu
- Harriak jasotzeko filosofia: harriekin hitz egin, harriak lagun
- 40 urteko harriekiko ibilbidea

*Hitzaldiaren hasieran bideo bat eskainiko da.*



**- 40 urte dira harriak jasotzen hasi zinenetik eta hortan jarraitzen duzu. Nolakoa izan da bidea hasi zinenetik orain arte?**

Laburpen txiki bat egin behar izango banu, esango nuke merezi izan duela. Dudarik gabe.

**- Zer azpimarratuko zenuke bide luze honetatik?**

Bizitza bizitzeko modu bat izan da. Ez da soilik

kirolean geratu, baizik eta askoz ere aberatsago eta zabalagoa izan da horrek eskaini didana.

**- Eta esan duzun bezala harriak jasotzen jarraitzen duzu. Urteotan izandako bilakaera ikusita, kirol moduan hartzen duzu ala haratago doa?**

Beno, adibidez hilaren 12an Eibarren hitzaldia eskaintzera joango naiz, eta elkarriketa egiten ari garenetik hitzaldia eskainiko dudana arte beste hiru saio egingo ditut harriak jasoz eta bat Bretanian gainera.

**- Erakustaldi moduan egingo duzu?**

Bai, erakustaldi moduan.

**- Eibarko zitari begiratu. Nolakoa izango da hemen eskainiko duzun hitzaldia?**

Pixkat bat nere esperientzia kontatuko dut, harriak eman didan esperientzia. Nola bait 40 urte hauetan harriekin nola ibili naizen, harriak zer esan didan edo nik harriaren bidez herria nola ikusi dudana.



Itxaki Perurenaren irudia orain dela urte batzuk.

## Santanderrera irteera hilaren 23an Pedruchoko zezenzaleekin

**EIBARKO PEDRUCHO ZE-ZENZALEEN ELKARTEKOEK UZTAILAREN 23-RAKO SANTANDERRERA IRTEERA** antolatu dute. Egunerako pres-tatu duten programa honakoa da: 09.00etan Ego Gaineko autobus geltokitik irten eta hamarretakoa bidean egingo dute. 11.30ak aldera Somon barkua hartu eta Santanderren eguerdirako egotea dago aurreikusita. Bazkaria hango jate-txe batean egingo dute, 14.45ak aldera, eta 17.30etan jatetxetik zezen-plazara joango dira, 18.30etan hasiko den nobillada ikustera: Victor Barrio,

Sergio Flores eta Mario Alcalde nobilleroek jardungo dute, La Quinta ganadutegiko zeko-rrekin. Eibarrera buelta 22.00-ak aldera egingo dute (gauer-dian ailegatzeko). 50 lagunentzat tokia dago autobusean eta irteeraren prezioa 75 eurokoa da bazkideentzat (85 eurokoa bazkide ez direnentzat). Prezioaren barruan autobusa, hamarretakoa, barkua, bazkaria eta zezen-plazarako sarrera daude. Interesa dutenek uztailaren 21eko 19.00ak arte izango dute izen-emateko aukera. Txartelak Arkupe, Leo, Zubi-Gain eta Egogain tabernetan eros daitezke.



Santanderrera egin beharreko irteeran nobillada ikusteko aukera izango dute.

## Karibe aldeko dantzak Krabelinen

**ARRATEKO KRABELIN HOTE-LAK JARDUERA BEREZIA ANTOLATU DU UZTAILAREN 16-RAKO** (zapatua), udako gauari ikutu berezia emateko asmoz: afari-koktelarekin hasi eta, jarraian, Karibe aldeko erritmoei jarraituta dantzan egiten ikaste-ko oinarrizko pausuak ikasteko aukera izango da, Txema Ballesteros maisuaren laguntzarekin. Dantzaldia goizalderarte luzatuko da, 02.00ak arte, hala nahi duenarentzat behintzat. Afaldu eta dantza-ikastaroan parte hartzeak 30 euro balio du eta joan nahi dutenek uztailaren 14rako eman beharko dute izena, Krabelinera zuzenean joanda edo 943202727 telefono zenbakira deituta.



## Antzerki irakurria gaur gauean

### URTEROKO MARTXARI JARRAITUTA, MARTITZENEAN ESKAINI ZUTEN ARRATE KULTUR ELKARTEAK

antolatuta-ko udako diaporamen lehenengo emanaldia, San Andres elizako klaustroan: Asier Aranzabal eta Mila Gallastegiren "Zaldiz mugarik gabe" izenburukoa, eta bertaratutakoek Saharako basamortuan eta Mongoliako estepan eta taigan zehar hartutako irudi paregabeekin gozatzeko aukera izan zuten. Eguaztenean eta atzo ere diaporama bana eskaini ziren: eguaztenean Joxe Ramon Agirreren "Dolpo, biziaren muturrean" Nepal ipar-mendebaldeko irudiekin osatutako lana eta bart, berriz, Dolomita mendien edertasuna ezagutzeko parada izan zen M. A. Otsoa de Alda eta I. Diaz de Garaioren ikus-entzunezkoarekin. Hiru emanaldiak Kutzak babestutakoak izan dira.

Udako gauak girotzeko egitaraua biribiltzeko, berriz, gaur gauean "Una noche de verano con Don Mendo y..." antzerki-irakurri emanaldia eskainiko dute Teatro Interior taldekoek. Maite Lorenzo, Eduardo Falces, Juanma Cano eta Sardo Irisarrick piano eta biolinaren zuzeneko soinua izango dute lagun, hainbat egileren poemak eta "La venganza de Don Mendo" lan ezagunaren moldaketa errezitatzeko orduan. Teknikaria Alberto Toledano izango da. Ikus-kizuna 22.00etan hasiko da, San Andreseko klaustroan eta sarre-ra libre da.



## Arrateko bertso afarirako sarrerak laster salgai

**UZTAILAREN 18-TIK 27-RA ...ETA KITTO!KO BAZKIDEEK IZANGO DUTE SARRERAK EROSTEKO AUKERA** (2 sarrera bazkide bakoitzeko) 27 eurotan, ...eta kitto!-n bertan (Urkizu 11 solairuartea). 28tik aurrera, aldiz, bazkide ez direnek ere erosi ahal izango dituzte 28 eurotan, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian. Aurtan ere kartel bikaina eskainiko digu Arrateko bertso afarirako: ohiko Sebastian Lizaso eta Andoni Egañari Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus gehituko zaizkie aurtan, eta Asier Ibaibarriaga gai-jartzai-learen esanetara jardungo dute. Betiko moduan Arrate Egunaren bezperan, irailaren 7an, izango da afaria Kantabria jatetxean, gaueko 21.00etatik aurrera.

## Uztaila betea Karrika tabernan

**DOMEKA HONETAN BERTAN HASI ETA UZTAILA AMAITU AURRETIK, HAINBAT KULTUR EKI-TALDI** eskainiko dituzte Karrika tabernan. Uztailaren 10ean, 20.00etan Pettik bakarkako kontzertua eskainiko du. Martitzenean (hilak 12), 19.00etatik aurrera eta UEU-ko “Auzolana eta herrigintza-bizimodu



Petti-k joko du domekan, 20.00etatik aurrera.

komunitarioak berpiztuz” ikastaroaren baitan, “Hankahutsik” poesia emanaldia egingo da. Hurrengo egunean, eguaztenean, bezperakoaren bidetik Ibon RG eta Okerrekok auzolan musikala eskainiko dute (19.00etan). Emanaldiek hurrengo asteburuarekin bat egingo dute eta hilaren 15erako Eroa Nazan-en estreineko kontzertuarekin gozatzeko aukera izango da, 20.00etatik aurrera. Hilaren 21ean Koktel Jaia egingo dute eta hilaren 28an, Napoka Iriak bere lanik berriena aurkezteko kontzertua amaituta, beste koktel jai batekin agurtuko dute uztaila.

## Lambretta motorren kontzentrazioa

**AZKEN URTEOTAKO IBILBIDEARI JARRAITUTA, ASTEBURU HONETAN ESKUTIK HELDUTA JOANGO DIRA LAMBRETTA EIBAR VIII. KONTZENTRAZIOA** eta San Kristobal auzoko jaiak. Aste honetan herriko hainbat eskaparate apaintzen ikusi ditugun motorrek kalea hartuko dute bihar eta etzi, baina aurretik eta asteburua ganoraz hasteko gaur musikarentzat tartea izango dute Lambrettakoek, San Kristobal auzoko jaietan: 22.30etatik aurrera Bon Joviren kontzertua pantaila handian ematen hasiko dira eta, ondoren, zuzeneko kontzertuan izango dira Medina Azahara taldekoak. Bihar goizean, 09.00etan hasita eta eguerdira bitartean, Lambretta eta Mobylette erakustaldia izango da Untzagan. Eguerditik aurrera kalejiran ibiliko dira motorzaleak eta jarraian San Kristobalgo VIII. Igoeran par-



te hartuko dute. Sariak banatuta, herri bazkaria egingo dute auzoan eta arratsaldean Mutrikura joango dira animatzen direnak, bertan bainua hartzeko. Gauean berriz ere musikarekin gozatzeko aukerarik ez da faltan izango, San Kristobalen ospatuko den Udako Festan. Eta domekan, 10.00etatik aurrera eskualdean zehar ibiliko dira, hamarretako-bermuta eginda. Eibarren kalejira egin eta 14.00ak aldera agurtuko dute aurtengo ekitaldia.

## EHGO-ko musikariak udarako prestatzen



**EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRAKO MUSIKARIEK, AZKEN URTEOTAN EGINDAKOAREN BIDETIK,** udarako prestatzera etorriko dira Eibarrera, Hezkuntza Esparrura, Juan Jose Ocón zuzendari artistikoak gidatutako jardunaldian. Urtean birritan, udako zein neguko sasoietarako prestatzeko gure herrira etortzen hasi zirela urte batzuk badira. Bihar hasi eta hilaren 22ra bitartean aurtengo udan 14. denboraldia beteko duen orkestrako 90 bat musikari gaztek egingo dute bat Hezkuntza Esparruan, datozen egunotan Euskadiko hiru hiriburuetan emango dituzten kontzertuak prestatzeko. Hastear dagoen bira uztailaren 19an abiatuko da, Gasteizko Principal antzokian (20.30etan); hilaren 20an Donostiako Kursaallean jardungo dute (20.00etan); eta hirugarren eta azken emanaldia uztailaren 21ean Bilbon, Euskalduna Jauregian emango dute (20.00etan).

## laburrak

### DANBORRADA JANTZIAK

Danborradako Batzordetik aditzera eman digutenez, San Juan jaietan danborradetan erabilitako arropak eguaztenean, hilaren 13an jasoko dituzte arduradunek, 18.00etatik 20.00etara, Eibarko Udalak Urkizun duen lokalean (entseguetarako erabili den lokal berean, Beistegi eraikinean, Amalur ohian).

### PAILAZOAK

#### EL CORTE INGLES-IAN

Bihar pailazoan ikuskizuna eskainiko dute El Corte Inglés-eko terrazan: 18.00etatik aurrera Jakin eta Jolas pailazoan ikuskizunarekin ederto pasatzeko aukera izango dute bertara joatera animatzen diren guztiak. Hilaren 15 eta 16an, berriz, besteak beste play-back txapelketa egiteko asmoa dagoela aurreratu dute.

### URDAIBAIRA TXANGOA

Hilaren 21erako Urdaibai eta Biosferaren Erretzerba ezagutzera joateko irteera antolatu dute Untzaga jubilatutako etxeok. Autobusa 08.45etan irtengo da Ego-Gainetik eta bisita 10.00ak aldera hasteko moduan izatea aurreikusitako antolatzaileek. Bazkaria 14.30ak aldera hasiko da eta horren ostean bakoitzak nahi duena egin ahal izateko tartea egongo da. Irteeran parte hartzeko txartelak bulego ordutegian erosteko aukera izango da (25 euro).

### LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA

Juan San Martin Liburutegitik igorritako oharrean argitu dutenez, Udalak kaleratutako e-kultura gidan hankasartzea egin dute uztailerako Liburutegiaren ordutegian: aste honetan, gaur barne, 09.00etatik 19.30etara zabalduko dute (eta ez 20.30etara). Asteburuetan itxita egongo da.

## Urbat-Urkotronik-eko ahaztu ezinezko egonaldia Genevan

**ASTEBURU BETEA IZAN DUTE URBAT-URKOTRONIK-EKO SENIOR TALDEKOEK ETA BAITA GAZTEENEN** taldekoek ere.

Waterpoloia Genevan zelan bizitzen den dastatzeko aukera izan du hemengo espedizioak eta eliteko jokariak gertutik ezagutzeko abagunea ere. 1930ean eraikitako Nuoto estadioan, 4.000 ikusle hartzen dituen "pallanuoto"ko (waterpolo italiaraz) tenpluan, bertako igerilekuetan Europako Kopako eta World Leagueko final asko jokatu dira eta han egin zien harrera Luca Baldini lautan munduko txapelduna izanda-koak.

Torneo di Mare-n, bestalde, eibartarren senior mailako taldeak nazioarteko izarren aurka jokatu zuen eta, Davide Gogna Italiako 1. mailako jokariaren laguntza izan arren, azken postuarekin konformatu behar izan zuten; gazteenek, baina, brontzezko domina eskuratu zuten 3. eta 4. posturako partiduan Sturlako anfitrioiari 4-3 irabaziz. Azken partidu hori olatu handiak zituen itsasoan jokatu zen, ehundaka ikusleen aurrean eta Eibarko gazteen historian betirako gordeta geratuko den horietakoa izango da.



Irene San Sebastian podiumean (gorro zuriarekin), Rosa Bravo maila absolutoko irabazlearekin eta Ramirez eta Tirado txirrindulariekin.





## Domina bi Debabarrenarentzat Espainiako txapelketetan

**LEIRE OLABERRIAK ETA ANE SANTESTEBANEK EZIN IZAN ZUTEN PARTE HARTU ESPAINIAKO TXAPELKETETAN** eta horrek Debabarrenako txirrindulariei dominak lortzeko aukerak murrizten bazizkien, bikain jardun zuten Klub Deportiboko taldekoek eta, horrela, Dorleta Eskamendik ezustekoa eman zuen 23 urtetik azpiko erlojupekoa irabaziz, lehen eskuratutako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelei gehitzeko beste batekin. Irene San Sebastian, bestalde, onena izan zen maila bereko errepideko proban, lasterketan 4. postuan amaitu bazuen ere; azken honi asko erraztu zion garaipena amaierarako kilometro biren faltan Inma Rafael taldeki-deak egindako erasoaldiak.

## Amaña-Urko-Amaña berriro jokoan

**IAZ EZIN IZAN ZEN JOKATU IGOERA OSPETSU HORI BARRIANTEAREN 3. FASEAREN LANAK ZIRELA-ETA,** baina aurtan edizio berria izango du probak bihar, arratsaldeko 18.00etan hasita. Hamalagarren edizioak betiko ibilbidea izango du, sei kilometro eta erdikoa pasata: 3.600 Urkora igotzeko eta 2.960 Amañara jaisteko. Igoeraren gaur egungo marka 24 minutu eta 11 segundotan dago eta proba osoarena 38 minutu eta 4 segundotan. Aukera baliatuz, Amañako Jai Batzordeak Asier Cuevas atleta omenduko du orain arte atletismo munduan izan dituen lorpenengatik.



## Extrema Desértica, Eibarko korrikalarien neurrikoa

**HORI ERAKUTSI ZUEN BEHINTZAT BETERANOEN B MAILAKO PODIUMAK, IO-SU LAHIDALGA ETA ENRIKE AKUÑA** eibartarrak gore-gorenean ikusita. Zortzi izan ziren guztira gure herriko ordezkari-tza osatu zutenak Zaragozako Belchite herrian jokatzeko proba horretan: Jorge Carrión, Pedro Gómez, Oskar Sarasqueta, Javier García, Juanjo Larramendi eta Jose Nieto, aipatuta-

ko podiumeko Ipuruako beste biekien batera. Zapatuan bederatzik kilometro eta erdiko lasterketa egin ondoren, hurrengo egunean -domekan- 24 kilometroko ibilbidea bete zuten. Lasterketa Monegros basamortuaren inguruan egiten da eta, horretaz baliatuz, gure herriko parte-hartzaileek asteburu-pasa euren familiekin joateko aprobetxatu zuten, 23 laguneko taldea osatuz.

## Dianaren plater tiroa bihar Arraten

**BIHAR GOIZEAN, DIANA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK ANTOLATUTA,** plater tiro txapelketa jokatu da Arrateko tiro ze-



lailan. Lehiaketa Dianako bazkideentzat da bakarrik eta 10.00etan hasiko da; inskripzioak egin beharko direla-eta, antolatzaileek garaiz iristeko eskatzen die parte-hartzaileei.

*Inoiz baino arazo gehiagori aurre egin behar izan badiete ere, Eibar Hiria bolo-palmaren torneoa inoiz baino arrakastatsuagoa izan da bere 25. edizioan. Estatuko (eta, bide batez, munduko) jokalaririk onenak izan dira Ipuruako bolatokian txapel horren bila eta bi onenen arteko azken lehia ere gutxitan ikusi ahal izango den horietakoa izan da, "bolo bakar batengatik erabaki dena". Maila handiko saria, beraz, irabazlearentzat. Giro bikaina izan zen bolatokian eta azken emaitza zein izango zen azken unera arte ez jakiteak giro berezia eman zion domeka arratsaldekoari.*

Oscar González nagusitu zen Eibar Hiria bolo-palma torneoan, 420 bolorekin; Ruben Rodríguezek 419 bota zituen 'bakarrik'. Azken honek 17 boloren alde ateratzen zion Gonzálezzi finala hasi zutenean, baina azken honek hobeto jardun zuen zirt edo zart egiteko orduan. Casa Cantabriako antolatzaileak pozik daude Ipuruan bizi izan den joko-maila ikusita: "Jokalaririk onenak izateaz gain, ikusizuna ere izan genuelako kirolariek eman zuten maila dela-eta". Hala ere, bide maltasuari egin behar izan diote aurre aurt: "Desadostasunak izan dira Espainiak



Domekako podiumeko irudia.

## Horrelako mailako txapelketarik gutxitan bolo-palman!



Federazioarekin eta Kantabriako, Euskadiko eta Gipuzkoako Federazioko jokalariekin egin behar izan dugu txapelketa", diote. Arlo horretan, Patxi Mutiloa Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak egindako bitartekaritza lana azpimarratu nahi izan dute, "guri lana asko erraztu digulako eta gure artean jokalaririk onenak izatea ahalbidetu duelako". 50 jokalaririk hartu zuten parte txapelketan, "benetako figurak", eta torneoa Kantabriako txapelketarako balio-garria izan da eta baita Emilio Botín sarirako puntuagarria ere. Horatik zortzi jokalaririk "denak kantabriarrak" sailkatu ziren final-laurdenetarako eta, ondoren, etorri ziren finalerdiak eta finala.

Lehiaketa zortzi eskura jokatzeko da, "hirutan alde batera eta beste hirutan bestaldera eta esku bakoitzari

birle deitzen zaio. Eskumara botatzeari eskuera esaten zaio eta ezkerrean botatzeari erpurrura. Bederatzi bolo kokatzen dira eta 'emboque' beste txiki bat aldamenean: azken honi emateak hamar puntu balio du, baina oso zaila da, domeka guztian bakarrik azertatu zuten". Hiru-txirlotik oso desberdina da "Kantabria guztian jokatzeko den kirola. Han herri bakoitzak bolatoki bat du, Euskal Herriko herri bakoitzean frontoi bat dagoen moduan", dioskue Casa Cantabriakoek. Hala ere, gurean ere badago zaletasunik: "Gaur egun, Arrasaten, Ermuan eta Bilbo inguruan badira taldeak eta Eibarren ere sasoi batean, Urkiko bolatokia martxan zegoenean, baziren maila handiko jokalaririk". Uztailaren 17an joko horren ezaugarriak ikusteko aukera berria izango da hemendik gertu, Ermuan. "Gurea Kantabriako Etxea da, baina Eibarkoa: hori ez ahaztu!", esaten digute, euren ekitaldietara guztiak gonbidatzeko asmoz.



Txapelketa honekin batera, beste hainbat ekitaldi antolatzen ditu Eibarko Casa Cantabriak. Argazkian, bazkide gazteenarekin izandako detailea.





Armaginek hilaren 14an hasiko dituzte denboraldi berriari begirako lan saioak.

## Aurrendenboraldia zehaztu du Eibar KE-k

**ABUZTUAREN 21-EAN IREKIKO DU 2011/12 DENBORALDIA EIBAR KE-K, BAINA LEHEN NEURKETA HORRE-TARA** forma onenean heltzeko hainbat neurketa jokatu ditu aurretik talde gorriurdinak. Liga hasi baino lehen, hala ere, Errege Kopako lehen kanporaketa jokatu du Manix Mandiolaren taldeak abuztuaren 17an.

Armaginek hilaren 14an hasiko dituzte lan saioak eta Osasuna izango da eibartarren lehen aurkaria aurrendenboraldian. Uztailaren 22an arituko

dira elkarren aurka Taxoaren. 30ean Zalla izango da aurkaria Landaberrin eta abuztuaren 3an jokatuko dute lehen neurketa Ipuruan eibartarrek. Numanzia izango da arerioa neurketa horretan.

Soriako taldearen aurka aritu ostean, Laudioarekin izango dute lehia abuztuaren 6an Ellakurin. 10ean 2. B Mailara igo berri den Sestao izango da aurkaria eta 13an maila bereko Real Sociedad B-ren aurka arituko dira aurrendenboraldiari amaiera emanaz.

## Eibarko judokak Tokyon



**DENBORALDIARI AMAIERA EMATEKO TOKYORA JOANGO DIRA MANU AGIRRE** Kalamua Judo Taldeko entrenatzailea eta Adrian Riaño judoka. Japoniar hiriburuko Kodokan Judo Institutetik eskaintzen dituen kurtsoetan hartuko dute parte biek, zehazki Kata, teknika eta lehiaketa kurtsoetan.

Agirre eta Riañok 25 egun egingo dituzte bertan, aurretik Nekane Muguruza, Eneko Lores, Aitor Villalba eta beste hainbestek egin duten bezala.

## Eibartarra garaile Deba-Itziar triatloian

**ANDONI LOPEZ EIBAR TRIATLOI TALDEKO ATLETA NAGUSITU ZEN ZAPATUAN** jokatuak Deba-Itziar triatloiko kadete mailako proban; ez zen bera izan hemendik joandako atleta bakarra eta, horrela, Ane Ziaran bigarren postuan sailkatu zen juniorretan. Eibarko beste ordezkariak honako postuetan amaitu zuten: Alejandro Altuna (85), David Soto (134), Iker Aranzibia (162), Carlos Pérez de Obanos (172), Moises Altuna (230) eta Jose M<sup>a</sup> Artetxe (277).



## Espainiako itzuliaren tarteko helmuga Armeriaren aurrean

**TXIRRINDULARITZAKO ESPAINIAKO ITZULIAK, 33 URTE GEROAGO EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTEAN** sartzeaz gain, gure herrian kirol horrek duen zaletasuna hartu du kontuan eta, horrela, Armeria Eskolaren mendeurrena gain-gainean dugula-eta, Isasiko gainean tarteko helmuga kokatu du irailaren 10eko etaparen barruan (egun horretan Itzuliaren azken-aurreko etapa jokatu da, Bilbo eta Gasteizen artean).

Martitzenean aurkeztu zuten Coliseoan Itzulia Eibarrera heltzen dela eta, Ibon Uzkudu-

nek aurkeztutako ekitaldian, Javier Guillén Unipublic-eko eta Itzuliko zuzendaria, Jose Luis Novoa Armeria ikastetxe-ko zuzendaria, Patxi Mutiloa Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaria, Jose Aranberri Eibarko Txirrindularitza Elkartearen izenean eta Txomin Perurena eta Marino Lejarreta txirrindulari-ohiak izan ziren. Espainiako Itzulia aurretik zortzi aldiz pasatu da Eibartik eta hirutan, gainera, etapako helmuga izan da; tarteko helmuga ere izan da beste hiru aldiz eta beste batean erlojupekoaren irteera hartu zuten.

## Eibarko Hiria xake txapelketa Irunera

**IRUNGO BATALLA XAKE TALDEAK IRABAZI ZUEN XXVII. EIBARKO HIRIA XAKE TXAPELKETA.** 59 puntu eskuratu zituen Batalla, Errenteriako Fomento Cultural (53 puntu) eta Donostiako Easo Xake Taldeari (47 puntu) gailendu zitzaizen. Eibarko Klub Deportiboak talde bi aurkeztu zituen; bata, 6. postuan geratu zen (39,5 puntu) eta, bestea, 17. postuan (9 puntu).




Euskal Herri osotik etorritako 18 talde eta 75 xakelarik hartu zuten parte lehiaketan eta 5 minututako 612 partida jokatu ziren Untzagan. Klub Deportiboko Xake Bartzordeak, bestetik, Manuel Lopez jokalaria zoriondu nahi izan zuen aurten 80 urte beteko ditu-eta.


Maila bakoitzeko irabazleen talde-argazkia.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AMAIA, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Patxo handi bat etxekuen partez.



Zorionak, AITOR Ekiza Basurto, bixar hamabi urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NEREA, bixar zure lehelengo urtia ospatuko dogu-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL Lartain, atzo urtebete egin zendualako. Famelixaren eta, batez be, Ander eta Gorkaren partez.



Zorionak, UXUE Askasibar, bihotza, martitzenian urtebete egingo dozu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ELENE, neska handi, bost urte egin dozuz-eta. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, UNAI, martitzenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, IZARO eta LUR, aurreko zapatuan bi urte egin dozuzelako. Amama, Asier, Txus eta Aneren partez.

## HILDAKOAK

- Bitxori Elgezabal Olaeta. 94 urte. 2011-VI-30.
- Tomasita Atxa Telleria. 91 urte. 2011-VII-4.
- Amaia Urkidi Iriondo. 59 urte. 2011-VII-4.
- Jose Antonio Agirre Arriola. 71 urte. 2011-VII-4.
- Concepción Albistegi Ruiz. 80 urte. 2011-VII-5.
- Josefina Rekalde Mandiola. 89 urte. 2011-VII-5.
- Juan Serrano Moreno. 85 urte. 2011-VII-5.

## JAIOTAKOAK

- Loubna Benslaiman Srassi. 2011-VI-26.
- Malen Anitua Ros. 2011-VI-28.
- Aner González Gutiérrez. 2011-VI-30.

## zinea Coliseoan

**8an: 22.30**  
**9an: 19.15/22.30**  
**10ean: 16.45/20.00**  
**11n: 20.30**

### "Pequeñas mentiras sin..."

Zuzendaria: **Guillaume Canet**  
Aktoreak: **Marion Cotillard, Benoit Magimel, Jean Dujardin, François Cluzet**




Lagun talde batek urtero batzeko ohitura du; aurreko, nahiz eta eurretako batek istripua izan duen orain egun gutxi, ohiturarekin jarraitu eta batu egingo dira. Baina aurtengoan arazoak sortuko dira...

**8an: 22.30**  
**9an: 17.00/19.45/22.30**  
**10ean: 16.45/20.00**  
**11n: 20.30**

### "Resacón 2 ¡En Tailandia!"

Zuzendaria: **Todd Phillips**  
Aktoreak: **Bradley Cooper, Zach Galifianakis, Justin Bartha, Paul Giamatti**



Berrito batu dira Phil, Alan, Doug eta Stu, oraingoan azkenengo honen ezkontza dela eta. Las Vegasen bizi izan zuten jai handia ikusita, oraingoan Tailandian batu dira, jai lasaia edukitzeko asmoarekin, baina...

**8an: 22.30**  
**9an: 17.00/19.45/22.30**  
**10ean: 16.45/20.00**  
**11n: 20.30**

### "Cars 2" 3D

Zuzendaria: **John Lasseter**  
Pertsonaiak: **Rayo MacQueen, Mate...**



Munduko auto lasterketan hartu behar du parte Rayo MacQueen-ek. Pozik dago eta bere lagun Mate alboan izango duela pentsatzen du. Baina Matek proposamen sinistu ezina jasoko du. Zer egin?

## horoskopoa

**ARIES**

Ahultasuna, azal lehorra... bero honekin ur gehiago edan behar duzu. Ez da tontakeria, bestela sustoren bat hartuko duzu.

**TAURUS**

Heldu da ile hori mozteko ordua. Freskoago ibiliko zara eta, horrekin, itxura gaurkotuagoa izango duzu. Look berriak fabore egingo dizu.

**GEMINI**

Zerbaiten beharra izango duzu, baina ez duzu jakingo zeren. Sentsazio txarra da hori, baina buelta ematen jakingo diozu.

**CANCER**

Ahora zer eramaten duzun zaindu behar duzu. Dagoen beroarekin normala da tripetako mina izatea zuk jaten duzun guzti horrekin.

**LEO**

Asko entretenituko zara hurrengo egunotan. Une dibertigarriak pasako dituzu lagunekin, azken aldian egiten ez zenuen bezala.

**VIRGO**

Ezingo zara kexatu datorren astean, dena alde izango baituzu. Ondo aprobetxatu, ez baitakizu noiz gertatuko zaizun berriro.

**LIBRA**

Freskatu zaitez! Beroegi zabilta eta horrek ez dizu mesederik egiten. Freskatu, lasaitu eta orduan dena hobeto joango zaizu.

**SCORPIUS**

Goizetan ez zara pertsona izango, gaueetan atseden ez duzulako hartzen. Buruan duzun korapiloak ez dizu ondo lo egiten lagako.

**SAGITTARIUS**

Gauza asko imajina ditzakezu, zuretzat nahi duzun bizitza diseinatu, baina gauzak ez dira beti nahi bezala iriteten.

**CAPRICORNIUS**

Jarrera ez baduzu zuzentzen, bidean galduko zara. Azken aldian badirudi inguruan dena aldatu dela; ba ez, zu zara aldatu den bakarra.

**AQUARIUS**

Segundo batean gauza asko gerta daitezke: adi egon! Hala ere, zorteko zaude, gauza onak besterik ez zaizkizu etorriko-eta.

**PISCIS**

Horrela jarraituz gero, Amañan eta San Kristobalen monumentua egingo dizute. Jaiak gozatzeko dira, baina laga besteentzat ere!

**Barixakua 8****SAN KRISTOBALAK**

**19.00.-** Jaien hasierako txupinazoa eta kalejira.

**19.15.-** Auzokide ezagunari omenaldia: Francisco Núñez Pérez.

**19.30.-** Umeentzako jolasak.

**22.30.-** Bon Jovi super-festa pantaila handian.

**00.00.-** Kontzertua: Medina Azahara.

**AMAÑAKO JAIK**

**19.00.-** Jaietako txupinazoa, Igor Aldalur Bilduko zerrenda-buruaren eskutik.

**19.00.-** Kalejira, Tolosako Oria txarangarekin.

**19.45.-** Jokoak eta ikuskizuna, Gorriti eta bere abereekin: ponyak, astoak, basurdeak, bigantxak...

**21.00.-** Entziero txikia.

**23.45.-** Musika kontzertu itzela, Surfin Kaos, Gatillazo (Evaristo handiarekin) eta Atom Rhumba taldeekin.

**ANTZERKI IRAKURRIA**

**22.00.-** "La venganza de Don Mendo", Teatro Interior taldearen eskutik eta pianoak eta biolinak lagunduta. San Andres elizako klaustroan.

**Zapatua 9****LAMBRETTA EIBAR**

**09.00/12.00.-** Lambretta Eibar motorren kontzentrazioa. Akreditazioa eta motorren erakusketa. Untzagan.

**12.30.-** Parte-hartzaileen kalejira Eibarko kaleetan.

**13.00.-** Lambretta motorren desfilea eta San Kristobalgo VIII. Igoera. Parte-hartzaileei ongietorria eta sari banaketa.

**14.30.-** Bazkaria.

**18.30.-** Lambretta motorretan irteera eta bainua Mutrikun.

**23.00.-** Udako festa San Kristobalgo plazan.

**TIRALDIA**

**10.00.-** Diana elkartearen tiro-txapelketa (izen-ematea bertan egingo da). Arraten.

**Zapatua 9****SAN KRISTOBALAK**

**10.30.-** Marrazki lehiaketa, umeentzat.

**11.30.-** Haurrentzako Molto motorren kontzentrazio-lasterketa.

**14.30.-** Sandiada herrikoa Aizarna parkean.

**13.00.-** Kalejira-aurkezpena: San Kristobalera VIII. Igoera. Piskolabisa, Lambretta motorren erakusketa eta sari-banaketa.

**17.30.-** Erlojupeko XVIII. San Kristobal goiera.

**19.30.-** XII. Dardo Txapelketa helduentzat.

**21.00.-** Herri-afaria plazan.

**23.00.-** 60-70

hamarkadetako festa, DJ Chedarekin eta go-goekin.

**00.00.-** Kontzertua: Nuevas Amistades Peligrosas.

**01.30.-** Udako Jaia DJ Chedarekin eta go-goekin.

**03.00.-** Txokolate-jana.

**AMAÑAKO JAIK**

**14.30.-** Herri-bazkaria. Menua: paella, ura, ardoa, freskagarriak eta postrea. Prezioa: 2 euro.

**16.30.-** Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilarien emanaldia.

**17.15.-** Umeendako jokoak, Gorriti eta bere abereekin.

**18.00.-** Amaña-Urko-Amaña herri-krosaren irteera.

**19.30.-** Herri kirolak.

Harrijasotzaileak: Urdax Magunazelaia eta Izeta II.aren erakustaldia.

Aizkolariak: Fausto Mugertza, altueran egindako mozketan, eta Ugaitz bere semearen aurkako lehiaketa. Txingak:

Juanjo Agirregabiria munduko onenaren erakustaldia.

**21.00.-** Entziero txikia.

**21.15.-** Parrillada erraldoia, 400 lagunentzat. Menua: saiheskia, txorizoa eta oilasko-hegalak.

Prezioa: 6 euro.

**23.15.-** Helduen danborrada, Elgoibarko Mautixta txarangarekin.

**23.50.-** Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanarekin.

**00.30.-** Danborradak

Amañako plazaraino jarraituko du.

**00.30.-** Berbena, Nafarroako Ingenio orkestrarekin.

**Domeka 10****LAMBRETTA EIBAR**

**10.00.-** Irteera eskualdean eta hamarretako-bermuta.

**12.30.-** Parte-hartzaileen kalejira Eibarko kaleetan.

**14.00.-** Agur ekitaldia.

**AMAÑAKO JAIK**

**11.00.-** Auzoan hildakoan eta eibartar guztien aldeko meza, Amañako parrokian.

**12.00.-** Salda eta txorizoa bildutakoentzat.

**12.30.-** Umeen danborrada, dorreetatik

Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

**13.30.-** Lorontzi lehiaketa, sari askorekin.

**16.45.-** Umeendako jokoak, sorpresa askorekin.

**18.15.-** Txikilandia pailazoen emanaldia.

**19.15.-** Umeendako txokolate-jana, gailetekin.

**19.15.-** Kale-antzerkia, Detraka animazio taldearen "Zirkus Mirkus" lanarekin.

**20.15.-** Kallejonada, Imperial de Méjico mariatxiarekin. Kontzertua.

**SAN KRISTOBALAK**

**11.00.-** Tirolina eta ohe-elastikoak.

**11.30.-** Txapelketa: patatak salta berdean, Aizarna parkean.

**12.00.-** Auzoko hildakoan aldeko meza.

**13.00.-** Lunch-a, plazan.

**17.30.-** Freskagarri eta gozokien banaketa.

**18.00.-** Zezentxo eta ponyak, Gorixorekin.

**19.00.-** Umeen lehiaketen sari banaketa.

**19.30.-** Berbena, Araba orkestrarekin.

**20.00.-** The Wolf Style hip-hop taldearen emanaldia.

**21.30.-** Amaierako traka.


**Martitzena 12****HITZALDIA**

**19.00.-** Iñaki Perurenaren hitzaldia. Kultu-n.

**Eguena 14****EMANALDIA**

**20.00.-** Asier Serranoren ibilbidearen inguruko. Arrate Kultur Elkartearen.





## erakusketak

- Uztailaren 8ra arte  
**LAMBRETTA** motorren erakusketa.  
Eibarko dendetan.
- Uztailaren 31ra arte  
**EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA**ren erakusketa. Topalekuan.
- JULIAN OCHOA**ren argazki erakusketa.  
Klub Deportiboan.
- ANDONI TREKU**ren argazki erakusketa.  
El Ambigú tabernan.
- ZIGOR ASTIGARRAGA**ren argazki erakusketa. Portalea tabernan.

## deialdiak

- **Arrateetarako txosnak.**  
Eskaerak: Uztailaren 8tik 15era (13.30ak arte), Pegoran.

## lehiaketak

- **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.
- **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.

## farmaziak

- 8, barixakua**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 9, zapatua**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 10, domeka**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 11, astelehena**  
EGUNEZ **Mendiola** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 12, martitzena**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 13, eguaztena**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 14, eguena**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 15, barixakua**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

## telefono jakingarriak

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# DENBORAPASAK

SUDOKUJA

7	8		5					
			3	4				
	2			1		6	3	
8	4					7		
		1				8		
		2					5	3
	5	8		2			7	
				6	1			
					7		2	1

0	5	6	7	4	2	1	9	3
4	1	9	8	6	9	5	7	2
2	7	8	5	3	1	8	6	4
7	8	1	3	2	6	9	4	6
8	5	9	8	4	7	2	1	
9	2	4	1	7	5	3	8	6
1	4	7	2	9	3	8	5	8
3	6	8	4	6	7	2	1	9
5	9	2	6	1	8	4	3	7

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisu berria (5 urte) eta trasteroa salgai Mendaron. Logela bi. 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. 170.000 euro. Tel. 690-787891.
- Pisu salgai Ipuruan. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 690-310927.
- Pisu salgai Eiguren-tarren kalean. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 665-729231.
- Pisu salgai Txaltxa-Zelai kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Garajea aukeran. Deitu arratsaldez. Tel. 657-779650.

### 1.2. Errentan

- Lan arrazoiak direla-eta, Ermura etorri bazara epe zehatz baterako, pisua alokatuko nizuke Ermua erdialdean. Gutziz jantzia eta igogailuarekin. Tel. 636-257546.
- Pisu alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 687-537371.
- 3-4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.
- Logela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.
- Ubitxan buhardila alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Internet seinalea. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.
- Elgetan pisua alokagai. Logela bi, egongela, jangela, sukaldea eta komun bi. Eguzkitsua. Tel. 606-083992.
- Pisu handia alokagai Barakaldo kalean. Tel. 653-733457.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Amaña inguruan. Tel. 608-474923.
- Pisu alokagai Donostiako Eriz pasealekuan, Itsasaurre auzoan, lorategiz inguratuta. Logela bi, egongela, sukalde amerikarra eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 658-717754.
- Pisu alokagai Mutrikun. 3 logela eta komun bi. Eguzkitsua, terrazarekin eta inguru loretsuan. Dena kanpora begira. Tel. 943-201294 eta 645-728317.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Urkizun. Tel. 943-127100.
- Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.
- Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 674-481945.
- Neska eskaintzen da orduka edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 646-143287.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-394754.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 668-301550.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-396018.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Ordutegi zabala. Tel. 689-273664.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-874887.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko Eibarren edo inguruan. Esperientzia gozotegian, izozki-dendan eta barra eta mahaiko kamarera moduan. Tel. 676-822431.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Tel. 666-771151.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257875.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailen umeak zaintzeko. Tel. 663-527434.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 609-626366.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 648-603029.
- Neska euskalduna eskaintzen da uda partean umeak zaintzeko. Tel. 622-112644.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 696-509360.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 619-155804.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 671-742142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 669-068439.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 669-068439.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 608-147559 eta 638-249775.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 669-311385.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 699-813826.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 685-724198.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 628-762758.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
- Mutila eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarak egiteko, zerbitzari moduan eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-474923. Xiomara.

### 4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu eguerdian edo iluntzean. Tel. 688-841181.
- Kamarera/o behar da extra moduan. Esperientzia eta autoarekin. Tel. 677-638184.
- Aho eta hortz higienista behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com
- Klinika laguntzaile behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com
- Ilea zaintzaile behar da. Esperientziarekin. Tel. 620-721007. Sonia.
- Neska euskalduna behar da andra nagusia zaintzeko, interna moduan. Tel. 652-774988.
- Sukaldari-laguntzaile behar da. Ezinbestekoa da autoa eta esperientzia. Tel. 679-950907.
- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 616-801304.
- Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Alemanierazko klaseak ematen ditut: haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen ditut udan. Tel. 622-112644.
- DBHko klase partikularrak ematen ditut uztailen eta abuztuan. Euskalduna eta esperientziarekin. Tel. 678-346970.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Funtzio anitzeko xurgagailu-robot salgai. Erabili gabea. Prezioa adosteko. Tel. 943-120030 eta 637-020261.
- Aire egokitu portatila salgai. Olimpia Splendid issimo 11 modeloa. Potentzia: 3.000 frig/orduero. Tel. 659-453667.

### 6.2. Eman

- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

Lanerako gertu!



**MGEP**

MODERAGON GOI-ESKOLA POLITEKNIKOA

[www.mondragon.edu/mgep](http://www.mondragon.edu/mgep)

➤ Oñati gestio heziketa

[www.mondragon.edu/engresagintza](http://www.mondragon.edu/engresagintza)

**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK  
2011-2012**

**Matrikulazioa  
Uztailaren 4tik aurrera**

MGEP	OÑATI Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema Elektronikokiak eta Automatizatiak</li> <li>• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatizatiak</li> <li>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>• Fabrikazio Mekanikako Diseinua</li> <li>• Fabrikazio Mekanikako Produktibitate Programazioa</li> <li>• Industri Ekipam. Mantentimendua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio eta Finantzak</li> <li>• Idazkaritza</li> <li>• Merkataritza, Buzkari eta Marketing-a</li> </ul>
<b>Kontsulta pertsonalak:</b>	
943 71 21 91 E-posta: <a href="mailto:sarritxan@epa.mondragon.edu">sarritxan@epa.mondragon.edu</a>	943 71 00 09 E-posta: <a href="mailto:engresagintza@engresagintza.mondragon.edu">engresagintza@engresagintza.mondragon.edu</a>



KALLEJONADIA


Hamelingo  
Flautistia be...



**AMAÑA**ko  
jaixetara!!!

Txupinazua / Oria txarangia / Gorritiren animalixak / Entzierrua / Surfin Kaos / Gatillazo / Athom Rumba / Herri bazkarixa / Jone eta Miren trikitilarixak / Urkora herri-krosa / Harrija-sotzaillak / Aizkolarixak / Txingak / Parrillada erraldoia / Helduen tanborradia / Suzko erroberak / Ingenio orkestria / Hildakuen aldeko mezia / Saldia eta txorizua / Umien tanborradia / Lorontzi lehiaketia / Txikilandia paillazuak / Txokolatia eta galletak / Zirkus Mirkus kale antzerkixa / Imperial de Méjicoren kallejonadia / Jubilatuen bazkarixa / Bertso-afarixa / ETA ASKOZ GEHIXAGO!!!

ORIA TXARANGIA



TANBORRADIA

GATILLAZO



**HAN BAI MUSIKIA!**

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75